


Antigua

Euskal oiloari buruzko erakusketa

Euskal oiloari buruzko erakusketa zabalik dago Txirain elkar-
tean. 80ko hamarkadan euskal oiloa desagertzeko zorian izan zen, baina lagun
talde baten ekimenari esker bizirik iraun du. Egun, bost euskal oilo
mota daude: gorria, marraduna, lepassoila, zilarra eta beltza. Hau guz-
tia eta euskal oiloari buruzko beste hainbat argibide jakingarri ere aurki
daiteke Txirain elkar-
tean. Erakusketa 14
taulez dago osaturik.
Taula batzuetan oilo-
en argazkiak eta in-
formazioa dago. Eta,
beste batzuetan, ber-
riz, informazio hu-
tsa. Erakusketak
abenduren lehen
aste bukaera arte
iraungo du.



Elkarte berria sortze bidean

Irailean Antiguotarrak elkar-
tean jtxi zuen Espainiako Poliziak, Espainiako
Auzitegi Nazionalako Baltasar Garzon epailearen aginduz. Duela gutxi
"200 bailetzi" kanpaina jarri dute abian elkarteko kide izan zirenek beste
elkarte bat sortzeko asmoz. Elkar-
te horrentzat 200 bazkide lortzea da
kanpainaren xede nagusia. Auzoko hainbat tabernetan daude eskuragai
bazkide-txartelak. Bazkide egin nahi dutenek barran inprimakia eska-
zakete. Bazkide-txartela bete ostean, barra bertan ematea nahikoa da.


Bidebieta

Play Station 2 txapelketa

Ostiralean, hilak 21, Play Station 2 txapelketa egingo da Kontadores
Gaztelekuan. Bidebietako eta inguruko 14 eta 22 urte bitarteko neska-
mutilek parte har dezakete. Txapelketa 22.00etan hasiko da.

Mendiolako haurrak danborra jotzen

Joan den astelehenean ekin zieten Mendiola ikastetxean danborradako
entseguei. Danborradan Mendiolako ikasleak ez ezik, auzoko bost eta
hamalau urte bitarteko beste neska-mutillak aritu daitezke. Izena ema-
teko 943395092 telefono zenbakira delitu behar da. Entseguak astele-
henetan, asteazkenetan eta ostiraletan izango dira, 17.15etik aurrera.



Argitalpen honen edizioan lankide:



kutxa
gizarte ekintza

Jostura eta tapizeriak. Artile eta
hari-kontuetan etxerik hoberenak

Casa de Labores
1903an sortua

www.euskalnet.net/casalabores
Elkano 5, Tel.: 943 42 02 05

PARMA hotela
Itsaso aurrean.
Bainua, berogailua, telebista
eta telefonoa gela guztietan

SALAMANCA PASEALEKUA 10 • TEL.: 943 42 80 19